

JABEEN BATZARREI APLIKATU BEHARREKO ALDI BATERAKO ETA EZOHIKO NEURRIAK NOIZ ARTE: 2021eko abenduaren 31ra



ARAU OROKORRA

Jabeen Batzarretarako deiak egiteko eta batzar hauek egiteko betebeharra etenda geratu da 2021eko abenduaren 31ra arte, bai eta aurreikus daitezkeen diru-sarreraren eta gastuen plana eta urteko aurrekontuak batzarrean aurkezteko derrigorra ere.

GARRANTZITSUA

Aurrekontu luzatuak, bai eta erkidegoko gobernu-organoen agintaldia ere

ARAU BEREZIA

(Salbuespena aurreikusita dago, 2021eko abenduaren 31ra arte atzeratu ezin den akordioa hartu behar denerako. Kasu honetan batzarrak egin daitezke):

- * Bideokonferentziaz edo telefono-konferentzia anizkoitzez, baldintza batzuk betetzen badira.
- * Batzarrik gabeko erabakien bidez: botoa postaz ematea edo komunikazio telematikoa bideratuta, baldin eta parte hartzeko bermeak betetzen badira eta jabe guztien eta bidaltzailearen identifikazio nahikoa bermatzen bada.
- * Era presentzialean, une bakoitzean aplikagarri diren segurtasun neurriak bermatzen direnean.
- **Euskadin**, maiatzaren 7ko 7/2021 Dekretuaren arabera **maskara erabili behar da eta 1,5 metroko distantzia gorde behar da**. Horrek esan nahi du jabe bakoitzeko hiru metro karratuko zabalera aurreikusi behar dela.

GARRANTZITUA

Aurkaratzeko arrazoia izango da esandako parte hartze eta identifikazio bermeak ez betetzea.

Eusko Jaurlaritzaren 7/2021 Dekretuaren 1. artikulua COVID-19 a hedatzea saihestearen erantzule egiten ditu profesionalak eurak.

Neurri horiek **maiatzaren 9an sartuko dira indarrean, Alarma Egoera bertan behera utzi den egun berean** eta, osagarri gisa, **lurralde bakoitzean, dagokion Autonomia Erkidegoak ezarriko dituen arauak aplikatuko dira**.

LASAITASUNAK MARKA DAUKA